


## IRABAZI-ITURRIAK

Produktuaren kostuaren batzbestekoa 25€tako delako kontuan izanik indibidualki erosten dutenek momentuan ordainduko lukete kantitatea ez baita oso altua. Bai dendetan eta baita online bidez eginiko erosketak unean ordaindu beharko dira nahiz eskudirutan, txartelaren bidez edota mugikorraren bidez, ordainketa osotasunean egingo da.



Hala ere kontuan izan behar dugu produktua enpresa handiei ere bideratuta egongo dela eta hauek erosketak talde handitan egitea izango litzateke ohikoena. Hau dela eta diru kopurua asko igo daiteke eta honek ordainketa egiteko zailtasunak sortu dizake. Horretarako, 50 aletik gorako diru kopuruak zatika ordaintzeko aukera emango da eta ez hori bakarrik, deskontuak ere egingo dira kopuru batzuetatik aurrera eginiko erosketetan. 50 aletik gora %5eko deskontua egingo litzateke eta 100 aletik gorakoetan %10ekoa.